



BAKEAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN ETXEA


2016ko TXOSTENA




Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián




2016eko jardueren txostena




GIZA ESKUBIDEAK



OROIMEN HISTORIKOA



BIKTIMEKIKO ELKARTASUNA



PEDAGOGIA-BALIABIDEEN
ZENTROA



Erakusketak



Hitzaldiak



Oroimen
egunak



Kanpo jarduerak



Biktimei
aitortza
adieraztea



Proiekzioak



Argitalpenak




Topaketak,
bilerak eta
tailerrak



Prestakuntza,
sentsibilizazioa eta
balioetan
oinarritutako
hezkuntza



Elkarteentzako diru laguntzak



GIZA ESKUBIDEAK

Sentsibilizazioa eta kontzientziazioa

XIV. GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

2016ko apirilaren 15etik 22ra

Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldia

Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Bulegoak eta Donostia Kulturak antolatutako Donostiako Giza Eskubideen XIV. Zinemaldia, urtero bezala, Victoria Eugenia, Antzoki Zaharrean eta hiriko hainbat gune eta kultur etxetan burutu zen. Publikoaren harrera beroa eta kritika onak jaso zituen berriro ere Zinemaldiak.

Zinemaldia aurten inoiz baino nazioartekoagoa izan da, Donostia 2016rekin batera antolatutako ekimen bereziei esker: Human Rights Film Network Forum Europarra eta Zinemaren eta Giza Eskubideen Nazioarteko Gazte Topaketa.

Guztira, 16.863 ikuslek parte zuten Zinemaldiaren inguruan antolatzen diren hainbat jardueretan: zinema-emanaldiak, solasaldiak, bisita gidatuak, erakusketak, tailerrak...

10.075 ikusle izan ziren zine-emanaldietan: 6.390 Victoria Eugenia antzokiko 23 saioetara hurbildu ziren, 3.515 ikasle Antzoki Zaharreko goizeko 10 emanaldietara eta beste 170 kultur etxeetan antolatutako 8 film saioetara.

6.788 lagunek bestelako ekintzetan hartu zuten parte: 6.615 bisitari izan ziren 5 erakusketetan –Bakea josiz: Gatazka, arpillerak, memoria, Maitatzea ez da delitua: Gure borroka Afrikan, Artea eta giza eskubideak, haur eta gazteen XII. Ekitaldia, “Una flor mixe” eta beste erreportaje batzuk eta Hondar artean– apirilaren amaiera arte; 103 pertsonak Human Rights Film Network Forum Europarrean parte hartu zuten eta 70 Zinema eta Giza Eskubideen Nazioarteko Gazte Topaketan.

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA



GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA



Leyuad dokumentalaren aurkezpena. Lehen aldiz aurkeztu zen saharar film luze bat nazioarteko lehiaketan.

Giza eskubideen Zinemaldiaren aurkezpena: Iñaki Hernando, Amnesty Internationaleko ordezkaria, Eneko Goia, Donostiako alkatea, José Miguel Beltrán, DKko Zinema Unitatearen arduraduna eta Miren Azkarate, Kultura, Euskara eta Hezkuntzako zinegotzia.

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

Palmaresa

Zinemaldiak lau sari ematen ditu:

Publikoaren Saria Film Luze Onenari jaso zuen Khadija Al-Salami zuzendariaren **Diez años y divorciada** (*Ana Nojoom*) filmak; (Yemen-Frantzia-Arabiarr Emirerri Batuak, 2015). Haurren ezkontza behartuen gaineko filma.

Donostiako Giza Eskubideen XIV. Zinemaldiko Gazteriarren Saria Film Labur Onenari Sergio Milánen **Para Sonia** (Espainia, 2015) filmari eman zitzaion. Pertsona itsuen irisgarritasunaren eta film bikoizketaren ingurukoa.

Amnesty International Saria Hemal Trivedi eta Mohammed Ali Naqviren **Among the Believers** (AEB-Pakistan, 2015) filmari eman zion Aiko kideek zein ikus-entzunezkoen profesionalek osatutako epaimahaiak. Madrass eta jihadismoaren inguruko dokumentala.

Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiaren Saria, berriz, Tony Gatlifek —aktore, zuzendari, musikari eta gidolariak—, jaso zuen. Ijito herriaren kronista ofiziala kontsideratzen da Gatlif



Sergio Milán eta Khadija Al-Salami, Ernesto Gasco alkateordearekin eta Amnesty Internationaleko eta gazte epaimahaiko kideekin

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA



Tony Gatlif zuzendari, aktore eta ijito herriaren kronista ofizial bihurtu denak, Giza Eskubideen Zinemaldiaren Saria jaso zuen Eneko Goia, Donostiako alkatearen eskutik.

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA



Ezkerrean, Amnesty International epaimahaiko kideak. Eskuinean, horiekin batera, Film Luzeen Lehiaketako saria ematen duten gazte epaimahaiko kideak, Juan Ramón Viles, Giza Eskubideetako zinegotzia eta José Miguel Beltrán, Donostia Kulturako Zinema Unitatearen arduraduna.

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA



Gazte epaimahaia, 18 eta 30 urte bitarteko 100 lagunetik gora osatua



Khadija Al-Salami zuzendaria "Diez años y divorciada" filma aurkeztzen

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA



Daniel Burgik Nazioarteko Film Laburren lehiaketara aurkeztu zuen "Las pelotaris" film laburra

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA



Richard Oribe, “Al otro lado de las medallas” dokumentalaren protagonista, Iñigo Asensio zuzendariarekin



“Tarajal, desmontando la impunidad en la frontera Sur” dokumentalaren zuzendaria, Marc Serra, eta Helena Maleno giza eskubideen aldeko aktibista, Begoña del Teso solasaldiko dinamizatzailearekin.

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA



Mabel Lozano, “Chicas Nuevas 24 horas” dokumentalaren zuzendaria eta Rocío Mora, APRAMPeke ordezkaria



Juanmi Gutiérrez, “Ohialak adarretan” armeniar diasporaren eta kulturaren gaineko filmaren zuzendaria, taldekideekin

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

2016ko apirilaren 15etik 29ra

Ikasleentzako goizeko emanaldiak

6 eta 18 urte bitarteko 3.500 ikasletik gora parte hartu zuten Giza Eskubideen Zinemaldiak ikastetxeei zuzendutako goizeko emanaldietan.

Ezberdinen arteko adiskidetasuna, haurren hezkuntza sistemara egokitu beharra edo auzo txirotuetako nerabeek dauzkaten zailtasunak izan ziren, besteren artean, pelikuletan jorratutako gaiak.

Antzoki Zaharreko goizeko saio hauen helburua da giza eskubideak oinarri dituzten gaiak lantzea. Horrela, haur eta gazteen artean hainbat balioaren inguruko sentibilizazio eta kontzientziazioa lantzeko aukera bikaina ematen da, betiere hezitzaileen laguntzarekin.



Goizeko emanaldiak

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA



Estrainakoz , itsuentzako emanaldi irisgarriak eskaini ziren Zinemaldian, gorrentzat egiten den bezala



Telmo Irureta, ikasleentzako goizeko emanaldien aurkezlea

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA



Donostian elkartutako HRFN sareko Giza Eskubideen Zinemaldien ordezkariak Europari babesa eskatzen dioten errefuxiatuen aldeko manifestua aditzera eman zuten.



DSS2016rekin batera antolatutako jardueren elkarte laguntzaileak: San Telmo Museoa, SOS Arrazakeria, Zazpi t'ardi, Larrotxene Kultur Etxea eta Iresgi.

HUMAN RIGHTS FILM NETWORK FORUM EUROPARRA

2016ko apirilaren 15etik 17ra

Human Rights Film Network Forum Europarra

Aurten, Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldiak eta DDSS2016Euk Human Rights Film Network Forum Europarra antolatu zuten, San Telmo Museoan.

Nazioarteko sare horrek mundu zabaleko 38 zinemaldi biltzen ditu.

Forumea, Italia, Sahara, Norvegia, Polonia, Alemania, Txekia, Bosnia-Herzegovina, Suitza, Holanda eta Espainiako ordezkariak elkartu ziren.

Besteak beste, honako gai hauen inguruan gogoeta egin zuen: frontierak, migrazioak, errefuxiatuak eta zinemaren eragina giza eskubideen sustapenean eta defentsan.



HRFNeko ordezkariak hainbat mahai-ingurutan parte hartu zuten, zinemagile eta giza eskubideen aldeko aktibistekin batera

ZINEMA ETA GIZA ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO GAZTE TOPAKETA

2016ko apirilaren 15etik 22ra

Zinema eta Giza Eskubideen Nazioarteko Gazte Topaketa

Zinemaldiaren astean zehar Zinema eta Giza Eskubideen Nazioarteko Gazte Topaketa egin zen. Guztira 30 gazte elkartu ziren: 7 Donostia eta ingurukoak, 19 Europakoak (Italia, Herbehereak, Alemania, Danimarka eta Polonia) eta 4 Mendebaldeko Saharakoak.

Ekimen horren bitartez, giza eskubideei eta ikus-entzunezkoek zein teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerei buruzko gogoeta sustatu zen; hain justu, teknologia berriek giza eskubideen urraketa salatzen tresna gisa eta mundu osoan giza eskubideak benetan baliatu daitezela sentsibilizatzeko, sustatzeko eta defendatzeko elementu gisa eskaintzen dituzten aukerei buruz.

Jarduera DSS2016rekin batera antolatu zen, eta Gazteria eta Aterpetxe Sailaren laguntza izan zuen.

Gazteek ikus-entzunezko hainbat lan sortu zituzten, arrazakeria, migrazioa, xenofobia edota genero aniztasunari buruz, besteak beste. SOS Arrazakeria eta Zazpi t'erdiren laguntzarekin. Gainera, Gazte epaimahaian ere parte hartu zuten.

Horrez gain, Euskal Herriko errealitatea hurbiletik ezagutzeko aukera izan zuten, Pablo Malo, Ander Iriarte, Maite Ibañez eta Begoña Atín zinema zuzendarien eskutik. Saharako deserri egoeraren berri ere izan zuten, Saharako aktibisten bitartez. Gainera, Pamela Yates eta Paco de Onis zuzendariak master class bat eskaini zuten.



Zinema eta Giza Eskubideen Nazioarteko Gazte Topaketako kideak

ZINEMA ETA GIZA ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO GAZTE TOPAKETA



Ikus-entzunezko tailerra eta mahai ingurua San Telmoko Tuiza jaiman

ZINEMA ETA GIZA ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO GAZTE TOPAKETA



Mahai-ingurua, Begoña Atín, Maite Ibañez, Ander Iriarte eta Pablo Malo zinema-zuzendariekin. Guztiak, Paul Ríos Lokarriko koordinatzaile ohiarekin batera, Euskal Herriko gatazkaren inguruan aritu ziren

FISAHARAN PARTE HARTZEA

2016ko urriaren 11tik 18ra

Gazte epaimahaiko kideak, Fisaharan

Ainara Kaltzakortak eta Daniela Rojasek, Donostiako Giza Eskubideen XIV. Zinemaldiko Gazte Epaimahaikideak, Fisaharan parte hartzeko aukera izan zuten. Saharako Nazioarteko Zinemaldia Dajlako kanpamenduan (Tindouf, Arjelia) egin zen, urriaren 11tik 16ra. Fisahara da errefuxiatuen kanpamendu batean egiten den zinemaldi bakarra.

Zinemaldiko Epaimahaiko funtzioak bete zuten artean, bi kide horiek suertatu ziren hautatuak.

Beraiek, beste 100 gazterekin batera, erabakitzen dute Zinemaldiko Nazioarteko Film Laburren Lehiaketaren saria. Aurten "Para Sonia", Sergio Milánen lana, saritu zuten 3.000 euroekin.



Fisaharako emanaldia, errefuxiatuen kanpamenduetan

EMANALDI BEREZIA

2016ko urriaren 14an

Emanaldia: *En tránsito*

Giza Eskubideen Zinemaldiak Oskar Tejedor zuzendari gipuzkoarraren *En tránsito* dokumentala estreinatu zuen, Donostiako Antzoki Zaharrean, Bidez bide elkartearen elkarlanarekin eta Sonora Estudios enpresak ekoiztuta.

Filmak emakume etorkinei, jatorrizko herrialdeetan geratzen diren euren seme-alabei eta hauek zaintzen dituztenei ematen die hitza.

Proiektzioaren ostean solasaldia egin zen dokumentalaren protagonistekin: Euskadira bizimodu hobea baten bila etorri diren emakume etorkinak, euren seme-alabak, filmaren zuzendaria eta Soraya Ronquillo, Bidez bide elkartearen presidentea.



Oskar Tejedor zuzendaria, filmeko protagonista batzuk, Bidez bide elkarteko eta Sonora Estudioseko ordezkariak

ARTEA ETA GIZA ESKUBIDEAK

ARTEA ETA GIZA ESKUBIDEAK

2016ko urtarriletik apirilera

Artea eta Giza Eskubideak, Haur eta Gazteen XII. Ekitaldia

6 eta 18 urte bitarteko 2.400 haur eta gazte inguruk parte hartu zuten Artea eta Giza Eskubideak, Haur eta Gazteen XII. Ekitaldian. Jarduera Donostiako Udaleko Giza Eskubideen atalak antolatzen du, eta 2016an bat egin zuen Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburutzarekin. Horregatik aukeratu zuen aurten kultura eskubidearen gaia, margolanetan islatzeko.

Margolan gehienak Donostiatik iritsi ziren, baina Urretxu, Zumarraga eta Pasaiatik ere bidali zituzten. Guztira 23 ikastetxe, 7 haurtxoko, 6 gazteleku, 5 arte akademia, 2 elkarte eta beraien gisa izena eman zuten beste 9 lagunek parte hartu zuten.

Epaimahaia ondoko hauek osatu zuten: Xabier Baztarrika, pintore eta irakasleak; Elena Odriozola ipuin ilustratzaileak eta Ricardo Ramon, Dibulitoo enpresan lan egiten duen animazio filmen produktoreak.

Sari Banaketa, apirilaren 17an egin zen Udaletxeko Pleno aretoan eta aurtengo ekitaldiko saridun guztiek, 57k hain zuzen, parte hartu zuten. Parte hartzaile guztiek diploma bat eta aurtengo ekitaldiko margolan batzuk biltzen dituen Bazen Behin liburua jaso zituzten.

Margolan guztiak ikusgai izan ziren Victoria Eugenia Antzokian jarri zen Giza Eskubideen Zinemaldiko informazio bulegoan, apirilaren 15etik 24ra bitartean



Artea eta Giza Eskubideak, Haur eta Gazteen XII. Ekitaldian aurkeztutako lanen erakusketa

SARI BANAKETA



Sari Banaketa, apirilaren 17an egin zen Udaletxeko Pleno aretoan. Aurtengo ekitaldiko saridun guztiek, 57k hain zuzen, parte hartu zuten. Denek jaso zuten diploma bat eta aurtengo ekitaldiko margolan batzuk biltzen dituen Bazen Behin liburua.

ERAKUSKETAK

ERAKUSKETA

2015eko azaroaren 20tik 2016ko otsailaren 7ra

Erakusketa: “Afganistán. Emakumeak”

Aiete Kultur Etxean ikusgai egon zen Gervasio Sánchez argazkilariaren eta Mónica Bernabé kazetariaren “Emakumeak. Afganistán” izeneko erakusketa. Erakusketa adierazteko, bisita gidatuak eskaini zituzten eta baita hitzaldi bat ere, Afganistanen egoaren eta bertan eginiko euren lanaren gainekoa hain zuzen. 500 lagunetik gora parte hartu zuten ekitaldietan.

Erakusketa honetan islatzen denez, Afganistanen emakumeen aurkako indarkeria familian bertan hasten da eta endemikoa da. Berdin dio talibanak agintean egon edo ez egon.

Donostiako Udaleko Giza Eskubideak eta Lankidetzaren Sailek eta Euskal Fondoak antolatu dute erakusketa.



Gervasio Sánchez eta Mónica Bernabé bisita gidatua eskaintzen

ERAKUSKETA

2016ko apirilaren 14tik ekainaren 14ra

Erakusketa; Bakea josiz. Gatazka, Arpillerak, Memoria

Aiete Kultur Etxean ikusgai egon zen "Bakea josiz. Gatazka, Arpillerak, Memoria" erakusketa, 32 arpillera -ehunezko pieza tridimentsionalak osaturik. Halako piezak Txilen egiten hasi ziren. Bertan, Pinocheten estatu-kolpearen ondoren, senitartekoak galdu zituzten emakume-taldek teknika honetan aurkitu zuten emozionalki eta ekonomikoki bizirik irauteko eta, aldi berean, giza eskubideen urraketa salatzeko modu bat. Horretarako, etxean zuten haria, orratzak eta oihal zatiak bezalako materiala erabili zuten, euren bizipenak iztupa-ehun baten gainean josteko.

Donostiako erakusketan Txile, Ipar Irlanda, Espainia, Ingalaterra, Argentina, Kolonbia, Peru eta Zimbabwen, beste herrialde batzuen artean, egindako obrak ikus zitezkeen.

Erakusketa koloretsu hori, Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Sailaren, Gernikako Bakearen Museoaren eta La Encartada Fabrika Museoaren arteko lankidetzaren emaitza da. Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesa izan zuen.



Juan Ramón Viles Giza Eskubideetako zinegotzia, Roberta Bacic komisaria, Gernikako Bakearen Museoa, Balmasedako La Encartada Museoa, Donostiako Udaleko Giza Eskubideen arloa, eta Fundació Ateneu Sant Roc-eko ordezkariekin batera.

ERAKUSKETA



Roser Corbera eta Manoli García Badalonako Sant Roc fundazioaren ordezkariak, bisita gidatuak eskaini zituzten Roberta Bacic komisariarekin batera

ARPILLERA SORMEN KULTURANIZTASUNEN TAILERRAK

2016ko apiriletik ekainera

Arpillera sormen tailerra etorkinekin. Gurutze Gorriaren laguntzarekin

Gipuzkoako Gurutze Gorriaren bidez, emakume eta gizon etorkin talde batek bi arpillera sortu zituen, "Bakea josiz. Gatazka, Arpillarak, Memoria" erakusketaren jardura osagarri gisa. Oihaletan, beraien bizipenak islatu zituzten, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean eta Gurutze Gorriko egoitzan hainbat tailerretan parte hartu eta gero.

Maroko, Kolonbia, Senegal edota Sahararik etorritako lagunek Roberta Bacic komisiarekin erakusketa bisitatu zuten eta, haren gidaritzapean, Aiete Jauregian arpillera bat egiteari ekin zioten. Ondorengo asteetan, Gurutze Gorriko lokaletan jarraitu zuten tailerak. Eraitza gisa, Donostian ekimen horren lekuko izango diren bi arpillera koloretsu sortu dira. Gainera, Gernikako Bakearen Museoan ikusi ahal izango dira, "Itsasoratze artibista" ekimenaren baitan, DSS2016rekin batera antolatutik.

Arpilleren aurkezpena Gurutze Gorrian egin zuten, ekainaren 14an. Parte hartzaile guztiak oso pozik azaldu ziren ekimenean jarduteagatik, terapia gisa baliagarria izateaz gain, elkar hobeto ezagutzeko, beraien sentimenduak adierazteko eta harremanak sendotzeko balio izan dielako.




Arpilleren aurkezpena, Gurutze Gorria Gipuzkoako lokaletan

ARPILLERA SORMEN TAILERRAK



Arpillera sormen tailerra, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean, Roberta Bacic komisariarekin



ERAKUSKETA

2016ko apirilaren 5etik 22ra

Erakusketa: Maitatzea ez da delitua, gure borroka Afrikan

"Maitatzea ez da delitua. Gure borroka Afrikan" erakusketa Amnesty Internationalek antolatutako 27 argazkik osatzen duen bilduma, Udal Liburutegi Nagusian ikusgai egon da, Giza Eskubideen Zinemaldiaren jarduera paraleloen artean. AI Zinemaldiaren laguntzailetakoa bat da.

Erakusketak sexu askatasunaren aldeko Afrikako borroka azaltzen du. Obraren egitasmoa, AIk adierazten duenaren arabera, errealitate horren ikuspuntu "positiboa" erakustea da. Izan ere, argazki bildumaren bidez aktibistak eta herritar anonimoak LGTBI komunitatearen eskubideen alde Afrikan egiten ari diren borroka erakusten du.

Maitatzea ez da delitua. Gure borroka Afrikan, Noxolo Nogwazari eta Jean-Claude Roger Mbédéri omenaldia egin nahi die, maitatzea delitua ez dela defendatzeagatik bizia galdu zutenei, hain zuzen.

Argazkiko istorioak Kenya, Hegoafrika, Kamerun, Zambia eta Uganda inguruetan garatzen dira. Irudietan homofobiaren eta transfobiaren kontra borrokatzen duten gizon-emakumeak ikus genitzake.



Amnesty Internationalek ekoiztutako erakusketa, Liburutegian

NAZIOARTEKO EGUNAK

LGTBQ ASKAPEN AFEKTIBO-SEXUALAREN ALDEKO NAZIOARTEKO EGUNA

2016ko ekainaren 28an

LGTBQ askapen afektibo-sexualaren aldeko Nazioarteko Eguna

LGTBQ askapen afektibo-sexualaren aldeko Nazioarteko Egunean Giza Eskubideen Atalak "Besarkadak. Abrazos" izeneko kanpaina jarri zuen martxan.

Kanpaina horren xedea zen errespetua, onarpena eta bizikidetzaren bultzatzea, sare sozialak erabiliz, eta sexu aniztasunaren inguruan gizartean sentiberatasuna eta kontzientziarazioa sustatzea.

Hainbat jarduera burutu ziren, esaterako, Kursaalaren argiztapena, koloreanitzeko banderarekin. Aniztasun sexualaren sinboloa ere Donostiako Udaleko fatxadan jarri zen eta baita Dbus eta Lurraldebuseko autobusetan ere.



Juan Ramón Viles eta Jon Insausti zinegotziek "Besarkadak" kanpaina aurkeztu zuen

HAURREN EGUN UNIBERTSALA

2016KO azaroaren 20an

Haurren Egun Unibertsala

Donostiako Udalak, Giza Eskubideen eta Kultur Aniztasunaren bulegoen eta Gazteria atalaren bitartez, Unicef, Mestiza elkartearen eta Donostia Kulturaren laguntzarekin, haurrak, gazteak eta familiak gonbidatu zituen babes bila dabiltzan pertsonen azalean jartzera eta aniztasunean elkarrekin bizitzen ikastera.

Helburu horiekin, azaroaren 17tik 26ra bitartean, 8 haurtxoko eta gaztelekuetan hainbat ekintzatan parte hartzeko aukera izango da, errefuxiatuen egoerara hurbiltzeko. Adibidez, Unicefek proposatu zituen "Babespean egoteko eskubidea dugu" edota "Harrera Pasaporte" saio didaktikoak.

Horrez gain, familian jolasteko eta sentitzeko askotariko jarduerak egin ziren. Gainera, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxearen ondoan dagoen Aieteko kultur etxean, festa ederra egin zen, kulturen arteko harremanak eta bizikidetzaren aniztasunean ardatzak izan zirelarik



Jarduera, Aieteko Kultur Etxean

BIZITZAREN ALDEKO/ HERIOTZA-ZIGORREAREN AURKAKO HIRIAK

2016ko azaroaren 2016

Donostia, Bizitzaren aldeko eta heriotza-zigorraren aurkako hiria.

Donostia hiria atxikitu zen Amnesty International eta Sant'Egidio Komunitatearen "Biziaren aldeko hiriak/Heriotza zigorraren aurkako hiriak" – "Cities for life/Cities against the death penalty" ekimenera, eta hori dela eta, azaroaren 30a "Biziaren aldeko hiriak/Heriotza zigorraren aurkako hiriak" – "Cities for life/Cities against the death penalty" eguna izendatu du.

Udal-administrazioak konpromisoa hartu du, atxikimendu honen harira erantzukizun handiagoa hartzeko eta lan gehiago egiteko bere eskumeneko arlo guztietan, eta, era berean, heriotza zigorra gaitzesteko arrazoiei buruz eta abolizio kanpainak mundu osoan egiten dituen aurrerapenei buruz informazioa emateko eta jendea sentiberatzeko espazioak sortzeko ere.

Udaletxeko fatxada, heriotza zigorraren aurka gorritz argiztatu zen, munduko hainbat eraikin enblematikok egin duten antzera.



Udaleko fatxada gorritz argiztatu zen heriotza zigorraren aurka

HIESAREN AURKAKO BORROKAREN NAZIOARTEKO EGUNA

2016ko abenduaren 1ean

HIESaren aurkako Parisko Adierazpenarekin bat egitea

HIESaren aurkako Nazioarteko Eguna abenduaren 1ean egiten da, eta horren harira, Parisen 2014. urtean mundu osoko hainbat alkatek onartu zituzten konpromisoak bere egiteko adierazpen instituzionala aurkeztu zuen Donostiako Udalak. Aipatu konpromisoak zehazten dituen agiriak "Ekintza bizkorra hirietan: HIES epidemiarekin bukatuz" du izenburua.

Talde politiko guztiek onartu zuten adierazpena, Euskal Sida federazioko kideak diren Harribeltzak eta Acasgik proposatuta.

Eneko Goia sinetsita dago "hiriek prebentzio-, tratamendu-, informazio- eta sentsibilizazio-ekintza ezberdinak gauza ditzaketela 90-90-90 helburuak 2020. urterako lortu ahal izateko". Urte hartan GIBa duten pertsonen % 90a bere egoeraren jakitun izatea, tratamendua jasotzea eta beren birusarekin bukatzea; hori da, hain zuzen ere, helburu horien xedea. Era horretan, 2030. urterako Hiesarekin eta tuberkulosiarekin loturiko heriotzekin bukatu eta infekzio berriak saihesteko moduan egongo ginateke"



Udaleko ordezkariak eta Hiesaren kontrako elkarteko kideak elkartu ziren konpromisoa aditzera emateko

HIESAREN AURKAKO BORROKAREN NAZIOARTEKO EGUNA

2016ko abenduaren 1ean

Jarduerak, Hiesaren aurkako borrokaren Nazioarteko Egunean

Donostiako Udalak bat egin zuen abenduaren 1a Hiesaren Aurkako Nazioarteko Eguna ospatzeko antolatu ziren jarduerekin. Acasgi, Ehgam, Gehitu eta Harribeltza elkartetako ordezkariekin batera.

Ondokoak izan ziren Acasgi, Ehgam, Gehitu eta Harribeltza antolatutako jarduerak, Udalaren laguntzarekin:

- Kontzentrazioa Kalkutako Teresa Plazako oroigarrian, eta Musika eta Dantza Udal Eskolako ikasleen dantza-saioa. Ekitaldian zehar, GIB/HIES gaixotasuna izan duten eta duten pertsona guztien oroimenezko plaka bat zabaldu zen.
- Kursaala begizta gorria zuela argiztatu zen.
- Udal ekipamenduetan, garraio publikoan eta Udaletxean bertan, begizta gorria zeramaten kartelak jarri ziren eta Udaletxeko aurrealdea gorritz argiztatu zen.
- Informazio-mahaiak Loiola kalean, Fnaceko sarreran.
- Gehitu eta Ehgam elkarteek Chemsex filmaren emanaldia antolatu zuten Amarako Ernest Lluch Kultur Etxean, eta antzerki saio bat Daba aretoan.



GIZA ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO EGUNA

2016ko abenduaren 10ean

Aba Taano, gospel kontzertu solidarioa

Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna zela eta (abenduaren 10ean), Aba Taano taldeak gospel afrikar eta amerikar kontzertu solidario bat eskaini zuen, dantza nahiz herri-eta trinal-kantekin lagunduta. Abenduaren 5ean izan zen, Antzoki Zaharrear.

Sarreraren salmentarekin jasotako diru guztia talde horrek sorburu duen Ugandako umezurztegira zuzendu zen.

Taldea osatzen duten bost gaztek munduan zehar beren musika zabaltzen dute, afrikar herrialdeko umezurtekin heziketa jaso eta etorkizuna landu ahal izan ditzaten musikaren eta dantzaren bitartez.

Ikuskizuna honako hauek antolatu dute: Musika para salvar vidas elkarteak, Donostiako Giza Eskubideen Bulegoak, Donostia Kulturaren laguntzarekin.



Aba Taanoren emanaldia, Antzoki Zaharrear

DIRU-LAGUNTZAK

DIRU-LAGUNTZAK

Elkarteentzako diru-laguntzak

Giza Eskubideen Bulegoak 53.300 euro banatu zituen irabazi asmorik gabeko 25 entitateren artean.

Diru-laguntzen helburua da Donostian bertan edo donostiarentzat interesgarri gerta daitezkeen beste esparru batzuetan bakearen, elkarbizitzaren, oroimen historikoa berreskuratzearen eta giza eskubideen aldeko hedapen, eraikitze, sustatze eta defentsa proiektuak eta jarduerak gauzatzea.



IKASTAROAK

GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO IKASTAROAK

2015/6 ikasturtea

Giza Eskubideei buruzko Donostiako XIX. Ikastaroak


Donostiako Giza Eskubideei buruzko XIX. Ikastaroan gradu ikasketa ezberdinetako hirurogeita hamar ikaslek parte hartu zuten.

Euskal Herriko Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidiaren eta Erakundeen Historia departamentuak, Donostiako Udaleko Giza Eskubideen bulegoarekin batera, antolatzen dituzte kurtsoa 1997az geroztik.

Behin lan guztiak ebaluatu direnean, hiru onenak hautatzen dira, eta egileek Rene Cassin Giza Eskubideen Estrasburgoko Nazioarteko Institutuak urtero antolatzen duen ikastarora joateko beka eskuratzen dute.

Ikastaroen edukia zabaltzeko asmoz, parte-hartzaileen (hainbat arlotakoak eta lekutakoak dira) hitzaldiak biltzen dira, urtero, liburu batean.





OROIMEN HISTORIKOA

BISITA GIDATUA

2016ko otsailetik ekainera

Bisita gidatuak: “Donostiako Oroimen Historikoaren Ibilbideak”

Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Bulegoak “Donostiako Oroimen Historikoaren Ibilbideetako” bisita gidatuak antolatu zituen.

- Ibilbide horien xedea da 36ko estatu kolpearen ondorioz sortutako Gerra Zibilean eta diktadura frankistan zehar gertatutakoak DBHko ikasleei ezagutzera ematea.

Guztira, 16 ikastetxetako 688 ikaslek parte hartu zuten, 35 bisitetan.

Hauk dira ibilaldian zehar bisitatu ziren 1936ko estatu kolpeko eta frankismoaren garaiko Donostiako gertaera nagusien gunek:

- 1.- Easo plazako kioskoa (abiatzea)
- 2.- Garai bateko suhiltzaileen eraikineko sotoa (gatazka lekua)
- 3.- San Jose ikastetxea (atxikitze lekua)
- 4.- San Martzial kalea 48-50 (bonbardaketa lekua)
- 5.- Txurruka kalearen eta Askatasunaren hiribidearen bideturteak (komunikabideak eta zentsura)
- 6.- Maria Cristina hotela (borroka lekua)
- 7.- Nautikoaren pasabidea (fusilamendu lekua)
- 8.- “Dual” Gerra Zibileko biktimak omentzeko eskultura



Bisita gidatua, ikasleekin

ERAKUSKETA

2016ko irailaren 13tik azaroaren 27ra

Erakusketa: “Oroimena bizirik”

“Oroimena bizirik” erakusketa ikusgai egon zen Aiete Kultur Etxean, Donostia matxinatutako tropa frankistek bere gain hartu zutenetik 80. urteurrena betetzen zela eta. Gerra Zibila pairatu zutenen argazkiak, objektuak eta testigantzak jasotzen ditu Bakeolak ekoiztutako esposizio honek.

Erakusketak gerra zibilean eta frankismoaren garaian gehiegikeria larriak pairatu izan zituzten lagun guzti horien aitortza egin nahi du, memoria kolektiboaren balioa berreskuratu, eta biktimenganako harrera eta enpatia sareak sortu, herritarrak berriro gertatuko ez den berme bizia izan dezaten.

Horrez gain, ikasleentzako eta publiko orokorrentzako bisita gidatuak eskaini ziren.



Eneko Goia alkatea eta Juan Ramón Viles, Gardentasuneko, Giza Baliabideetako eta Berrikuntzako zinegotzi ordezkaria, Bakeolako ordezkariarekin, bisita gidatuan.

OMENALDIA

2016ko irailaren 13an

Irailak 13: argia itzali

1936ko irailaren 13an, tropa frankistek Donostia bere gain hartu zuten, eta askatasun demokratiko guztiak zapaldu zituzten. Kolpe militarren 80, urteurrenean, Donostiako Udalak gogorarazi nahi izan zuen donostiarrek pairatu behar izan zuten bidegabekeria, asko izan baitziren beldurrez erbestera joan behar izan zutenak. Aldi berean, omenaldia egin zitzaion garaiko Donostiako Udalbatzari, indarrez desegin baitzuten.

Horretarako, Hika Hika antzerki taldeak, Eresbil abesbatzarekin batera, "Irailak 13: argia itzali" ekitaldi artistikoa eskaini zuen udaleko udalbatza aretoan. Musika, dantza, abesti eta hitzen bitartez, Frankisten zapalkuntza, herritarren bizi baldintzak, izua eta eskubideen urraketa islatu zituzten.



Eneko Goia alkatea "Irailak 13, argia itzali" emanaldian, Eresbil abesbatzarekin

BISITALDI ANTZEZTUAK

2016ko uztailetik irailera bitartean

***Bisitaldi antzeztuak: 80 urte eta gero,
oroimenaren bidea egiten***

Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Bulegoak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Zuzendaritza Nagusiarekin batera, doako bisita gidatu antzeztuak antolatu zituen, frankismoaren altxamendu militarren garaian gure hirian jasandakoa gertutik ikusi ahal izateko. Aktore profesionalek, testigantza eta eszenifikazioen bitartez, 1936ko uztailaren 18an izandako Estatu kolpea eta urte horretako irailera arte, matxinatutako tropak sartu arte, herritarrek bizitutako egoerak azaltzen dituzte. Guztira, 300 pertsona baino gehiagok parte hartu zuten

Ibilbideak Easo Plazan hasten dira eta ondoren San Jose ikastetxea, Askatasunaren hiribidea, Maria Kristina hotela eta Zurriolako zubia bisitatzen dira, toki horiek gerra zibilean garrantzia izan baitzuten.



Bisitaldi antzeztua

OROIMEN HISTORIKOAREN KONTSEILUA

Oroimen historikoaren kontseilua

Oroimen Historikoaren Kontseilua urte honetan zehar lau aldiz bildu zen, osoko bilkurako partaide guztien proposamenak jaso eta bideratzeko helburuarekin. Horretarako, urteko lehenengo bilkuran adostasun osoz onartu ziren jarduketaren hiru ardatz nagusiak:


- 1.- Egia ezagutzea eta dibulgazio lana egitea.
- 2.- Aitortza, justizia eta erreparazioa.
- 3.- Ez errepikatzearen bermea

Ardatz horien inguruan, 20 proposamen baino gehiago jaso ziren eta osoko bilkuran aurkeztu eta eztabaidatu ziren.

Aurkeztutako proposamenetatik batzuk bideratzen hasi dira, adibidez, irailaren 13a, Donostiako Oroimen Historikoaren Eguna izango da aurrerantzean. Hori dela eta, egun horretan omenezko ekitaldi bat egin zen.



Kontseiluaren bilera



**BIKTIMEKIKO
ELKARTASUNA ETA
AITORPENA**

BIKTIMEI BEGIRAKO EKITALDIAK

2016ko urtarrilaren 15ean

Biktimen aitortza eta oroitzapen ekitaldiak

Jonan Fernandez, Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusia, Donostiako alkate Eneko Goiarekin elkartu zen, Eusko Jaurlaritzak urtean zehar Donostian biktimei aitortpena egiteko bultzatuko zituen ekitaldien berri emateko. Ekimen horiek Donostia Europako Kultura Hiriburuaren proiektuaren barruan daude eta bere leloaren mamia hartzen dute: "Elkarrekin bizitzeko kultura".

Programa horrek aitormenezko hiru ekitaldian gauzatu zen, betiere ere terrorismoaren biktimei, frankismoko biktimei eta 107/2012 dekretuaren babesean dauden biktimei zuzendua.

Otsailaren 20an: Giza eskubideen urraketak jasan dituzten onartu gabeko biktimei ordaina emateko proposamenei buruzko jardunaldia eta aitortpena egin zen Kursalean.

Martxoaren 11n eta Terrorismoaren Biktimen Europako Egunarekin bat eginez, Donostiako Paseo Berrian dagoen Oteizaren "Eraikuntza Hutsa" izeneko eskulturaren aurrean, terrorismo-biktimak aitortzeko ekitaldia egin zen.

Maiatzaren 31tik ekainaren **8ra** bitartean "Memoriaren Plaza" erakusketa ikusgai egon zen Alderdi Ederren. Bertan, hainbat mahai-inguru eta jarduerak egin zituzten, indarkeriaren, biktimen egoeraren eta giza eskubideen urraketaren inguruan gogoeta egiteko.



Eneko Goia, Monika Hernando eta Jonan Fernandez, aurkezpenean

BIKTIMEI BEGIRAKO EKITALDIAK



Biktimen aldeko ekitaldiak, Kursaaletan eta Donostiako Pasealeku Berrian, otsailaren 20an eta martxoaren 11n, hurrenez hurren.



ERAKUSKETA

2016ko maiatzaren 30etik ekainaren 8ra

Erakusketa ibiltaria: “Memoriaren Plaza”

Eneko Goia Donostiako alkatea, Markel Olano Gipuzkoako ahaldu nagusiak eta Aintzane Ezenarro Gogorako zuzendariak irekiera eman zioten Donostian “Memoria Plaza”ren erakusketa ibiltariari. Euskadin azkeneko hamarkadetan gertatutakoaren testigantza jaso eta erakusten du, memoria anitza eta partekatua eraikitzeko asmoz.

Erakusketak honako guneak zituen: memoria-lekukotzak grabatzeko eremua, Gerra Zibilaren nahiz 107/2012 Dekretuaren babespeko frankismoaren eta terrorismoaren biktimen memoriaren lekukotzak entzuteko nahiz ikusteko bideoak, proiektzio eta debate eremua eta mezuen horma-irudia.

Lau xede ditu Memoriaren Plaza proiektuaren fase ibiltariak:

- > Memoria jendarteratzea eta partekatzea, erakusketa baten bitartez, eta guztion artean eraikitako gogoeta sustatzea.
- > Herritarrei beren memoria-lekukotza uzteko espazio bat eskaintzea.
- > Memoriak udalerrien eremuan lantzea, eta dinamikak sustatzea iraganari buruzko gogoeta kritikoak partekatzeko.
- > Gogora Institutua ezagutaraztea eta herritarrengana hurbiltzea.



Eneko Goia, Donostiako alkatea, Aintzane Ezenarro Gogorako zuzendariarekin

MEMORIAREN PLAZAKO JARDUERAK

2016ko maiatzaren 30ean eta ekainaren 2an eta 6an

Memoriaren Plazaren inguruko jarduerak

Memoria Plazan hainbat jarduera antolatu ziren:

- > Maiatzaren 30ean: "Donostiako memoria hurbila". Donostiako alkatea Eneko Goiak, eta Juan Carlos Izagirre, Odón Elorza, eta Xabier Albistur alkate ohiek mahai-inguru batean parte hartu zuten.
- > Ekainaren 2an: "Memoria eraikiz: biktimak eta gizartearen arteko elkarrizketa". Memoria eta bizikidetzari buruzko talde-dinamikak burutu zituzten, politika, gizarte edota kultura arloko eragile eta pertsonen partaidetzarekin.
- > Ekainaren 6an: Memoria historikoari buruzko hitzaldia. Lourdes Herrasti: "Hobiak hobitik aterez. Duintasunak berreskuratuz". Eneko Sanz: "Donostiako guerra zibila eta Fernando Sasiain bere alkate errepublikanoa"



Donostiako alkatea, Eneko Goia, Juan Carlos Izagirre, Odón Elorza eta Xabier Albistur-ekin

MEMORIAREN EGUNA

2016ko azaroaren 10ean

Memoriaren Eguna

Eguerdiko hamabietan udal korporazioa terrorismoaren eta bortizkeriaren biktimen omenez Alderdi Ederren jarritako monolitoaren ondoan elkartu zen eta, bertan, biktima horiek guztiak omentzeko eta aitortzeko ekitaldia egin zuten Memoriaren Eguna zela-eta. Horrenbestez, Txistularien Udal-bandarekin batera, bost minutuko isilune bat egin zuten eta, ondoren, lore eskaintza egin zuten.

Donostiako alkate Eneko Goiak azpimarratu zuen *"batasun irudia, hain zuzen ere, udal-talde guztien esfortzuarekin lortu den batasun irudia, gaur elkarrekin ekitaldia egin ahal izateko. Oso garrantzitsua da oroimena eta memoria egiteko egun hain garrantzitsuan guztiok bat egiteko gai izatea giza duintasun eta sufrimenduaren gaineko sentiberatasunaren balioak oinarri. Horrek balio handia du eta gaur elkarrekin hemen egotea ahalbidetu du"*.



Lore eskaintza egin zuten "Oroimena/ Memoria" monolitoaren aurrean


ELKARRETARATZEAK, ATENTATUAK GAITZESTEKO



Donostiako Udalak bost minutuko elkarretaratzeak egiteko deialdiak egin zituen Alderdi Ederren, Bruselan martxoaren 28an, Nizan uztailaren 14an, Saint-Etienne-du-Rouvray-en (Normandia) uztailaren 26an, eta Ankaran (Turkia) eta Berlinen (Alemania) abenduaren 19an izandako atentatuak gaitzesteko. Haien ondorioz, hainbat lagun hilik suertatu ziren.

Donostiako Udalak, une latz horietan, besarkada solidarioena eta hurbiltasun-sentipen sakonena bidali nahi izan zien Belgikako eta Frantziako herri osoei.

Donostiako Udalak EUDEL-en eta Lehendakariaren deialdiarekin bat egin zuen, eta Paris, Mali eta Kabuleko atentatuen ondoren egin zuen bezala, biktimen senide eta adiskideei elkartasuna adierazi zien.



**PEDAGOGIA-BALIABIDEEN
ZENTROA**

GIZA ESKUBIDEETAKO PEDAGOGIA-BALIABIDEEN ZENTROA

2016ko uztailaren 7an

Giza Eskubideetako Pedagogia-Baliabideen Zentroaren proiektuaren aurkezpena

Bakearen eta Giza Eskubideen Etxeak Giza Eskubideetako Baliabide Pedagogikoen Zentro espezializatua izango du, Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusi Jonan Fernandezek, Gipuzkoako diputatu nagusi Markel Olanok eta Donostiako alkate Eneko Goiak adierazi zuten.

Zentro hori giza eskubideetako hezkuntza-tresna zehatzak –hala nola filmak, dokumentalak, testuak, antzerki-lanak edo literatura-lanak– “biltzera, sortzera eta dibulgatzera” zuzenduko da. Halaber, Donostia 2016 Europako Kultura Hiriburutzaren ondarearen parte izango da.

Horrez gain, zentroaren motorra izango diren urteko bi ekitaldi hauen inguruan bilduko da zentroaren jardura:

Alde batetik, Giza Eskubideetako Baliabide Pedagogikoen Azoka eta, bestetik, Nazioarteko mintegia, Giza Eskubideen arloan garatzen diren baliabide eta esperientzia pedagogikoen ingurukoa.

2017-19 urte bitartean abian jarriko da Aieteko Zentroa



Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusiak, Eneko Goia Donostiako alkateak eta Jonan Fernandez Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusiak aurkeztu zuten proiektua Aieten.

PEDAGOGIA-BALIABIDEEN ZENTROA. LAN-TALDEA

2016ko azaroaren 11n

Gizarte eragileekin lan-jardunaldia


Giza eskubideen eta hezkuntza arloko eragileek Aieteko Pedagogia Baliabideen Zentro berriaz eztabaidatu zuten, zenbait erakunde-agintarirekin batera. Topaketaren xedea izan zen ekimena eragileen artean ezagutaraztea, bai eta beren ekarpenak jasotzea ere, 2017an D2016 Kultur Hiriburutzaren legatu gisa abiaraziko den behin betiko proiektua osatzeko.

Horrela, Gipuzkoako Ahdun Nagusi Markel Olanok, Donostiako Alkate Eneko Goiak eta Bake eta Bizikidetzaren Idazkari Nagusi Jonan Fernandezek erakunde-ekimen honen lan-plangintza aurkeztu zieten bertaratuei.

Jardunaldiaren barruan, halaber, hitzaldi bat eman zuen New Yorkeko Columbia Unibertsitateko irakasle eta HREA (Human Rights Education Associates) erakundearen fundatzaile eta aholkulari Felisa Tibbittsek.



Markel Olano, Gipuzkoako diputatu nagusia. Eneko Goia, Donostiako alkatea eta Jonan Fernández, Bake eta Bizikidetzaren idazkari nagusia, jardunaldian



**BESTE JARDUERA
BATZUK, BAKEAREN
ETXEAN**

BESTE JARDUERA BATZUK, BAKEAREN ETXEAN



Donostidiversity proiektua. Euskadi-Venezuela. Asociación Artística. Cultural Mestiza. Urtarrila



Euskadiko GGKEn Koordinakundea. Urteko Batzar Nagusia. Otsaila.

BESTE JARDUERA BATZUK, BAKEAREN ETXEAN



Arartekoaren Haur eta Nerabeen Kontseiluko saio bat, Aieten.
Otsaila.



Film, Human Rights and the Law (Bioethics and HH.RR.)
Globernancek antolatutako topaketa

BESTE JARDUERA BATZUK, BAKEAREN ETXEAN



Elena Gragerak eta Antón Cardók kontzertua eskaini zuten Bakearen Etxean, Musika Hamabostaldiaren barruan. Abuztua

Cadena SER "Hora 25" irrati-saioko emanaldia, ETAK su-etenaren iragarpenaren 5. urteurrenean . Urriaren 20an.

BESTE JARDUERA BATZUK, BAKEAREN ETXEAN



Foro Sozial Iraunkorraren bilera, Aieteko Aldarrikapenaren 5. urteurrenean. Urriaren 24an.



Zurrumurruen aurkako prestakuntza, SOS Arrazakeriak eskainita